



ZTF-FCT

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FISIKA KUANTIKA

9 Gaia: Molekulak

Ionizazio-energia eta disoziazio-energia

1. Oso urruti dauden hidrogeno-atomo batek eta protoi batek osaturiko sistemaren oinarritzko egoerarekiko, H_2^+ molekularen oinarritzko egoerako energia -2.65 eV -ekoa da. Kalkula bitez: (a) H_2^+ molekularen oinarritzko egoerako energia, oso urruti dauden bi protoik eta elektroik batek osaturiko sistemaren oinarritzko egoerarekiko; (b) oso urruti dauden H_2^+ molekula batek eta elektroik batek osaturiko sistemaren oinarritzko energia, oso urruti dauden bi hidrogeno-atomok osaturiko sistemaren oinarritzko egoerarekiko; (c) H_2 molekularen ionizazio-energia, molekula honen disoziazio-energia 4.48 eV -ekoa dela jakinik. Konpara bedi (c) ataleko emaitza hidrogeno-atomoaren ionizazio-energiarekin.